

# KONGO ETA KOBALTOA

KRIMEN BATEN FROGA SOINEAN



# LARRUN #302

# ZERTARAKO GAUDE PREST KONEKTATUTA JARRAITZEKO?

EGILEA | **URKO APAOLAZA AVILA**      AZALA | **IÑAKI LANDA**

**B**alio digu ilunabarrarekin azken erretratu hori ateratzeko. Edo instant batean ordaintzeko barrako zerbitzariari eskatu berri diogun *marianit*oa. Eta ze arraio, Levi'sak imitatu nahi dituzten praken atzealdeko poltsikoan ezin hobeto datoz. Horretarako ere balio du mugikorrak. Orduan, zeini axola dio ipurtaldean krimen baten froga zatitxo bat badaramagu? Gramo batzuk baino ez dira. Txute txiki bat. Serio, ze min egiten du?

2023an, laugarren urtez jarraian produkzioa gainditu eta 230.000 tona kobalto erauzi zen munduan. 2024a ez da desberdina izango. Mineral hori ezinbestekoa da litio-ioizko baterien iraupena handitzeko, bere bidez mugitzen gara. Izan ere, Androidak eta iPhoneen pantailak

pizteko ez ezik, trantsizio energetikora eramango omen gaituzten berri-erregeneratzaileentzako edo auto elektrikoentzako oinarritzako lehengaia da; bateria bakoitzeko 13 kilo kobalto behar da.

Kongoko Errepublika Demokratikoan dago munduko kobalto erre-serben erdia; gaur egun erauzten denaren %76 handik dator. Baina haur esplotazioa, istripuak eta kutsadura itzultzen dizkiegu kongoarrei. Zoritxarrez ez da nobedadea, lehen ere gauza bera gertatu baitzen boliaren eta kautxuaren industriekin: esklabotza eta genozidioa eman zitzaaien kanbioan. Progresoa deritzon amestutako leku hori jarri dugu mapa batean zintzilik, konturatu ere egin gabe kiloz kilo eta gramoz gramoz iraganera iritsi garela, XIX. mendeko Afrikaren bihotzera.

---

**LARRUN HILABETEKARI MONOGRAFIKOA** · ARGIAren 2.899 zenbakiarekin banatua

**JABEA:** KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L.    **HELBIDEA:** ZIRKUITU IBILBIDEA, 15. PABILOIA 20160 LASARTE-ORIA    **TELEFONOA:** (00 34) 943 37 15 45

**POSTA ELEKTRONIKOA:** LARRUN@ARGIA.EUS    **INPRIMATEGIA:** ANTZA KOMUNIKAZIO GRAFIKOA    **DISEINUA:** MAITANE GARTZIANDIA

2024ko abenduaren 29a

---



Katangan kobre eta kobalto meak lurrazaletik sakonera gutxian daude, horregatik da hain berezia Kongoko lurralde hori. / DOROTHÉE BAUMANN-PAULY / GCBHR

**L**umumba eta Shuman karriken arteko kale kantoi batetik bea ari da Ferdinand Lassalle. Lepoa luzatu du eta kopeta zimurto zaio begiak apur bat itxi dituenean, gehiago enfokatu nahirik-edo. Bere aurretik Place du Luxemburgo alde-rantz igaro diren zientoka manifestarietako batek esku goran duen afixak eman dio arreta: *On nous tue à cause de nos richesses* (Gure aberastasunengatik hiltzen gaituzte) leitu daiteke. Beste batzuek bandera urdin koloretsuak daramatzate soinean, eta kartoizko puska zaharretan idatzitako *Stop Genocide!* eta *Stop the War!* leloak oihukatzen dituzte megafonoa ahoan, gabardinak eta lepokoak estu lotzen dituzten bitartean. Hotz da Bruselan. 25 ditu 2024ko otsailak.

Lassallek kaiera eta arkatza atera ditu barruko sakelatik, ikusten ari

dena zirriborratzen hasi da orain. Bera kazetari klasikoa da, elegantea, detaile txikiei zukua ateratzen dakien horietakoa. Kaleko altzarietan han eta hemen itsatsitako pegatinen xumetasunari erreparatu die zeharka: *Let's start talking about Congo* (Has gaitezen Kongoz hitz egiten), diote hizki apalez. Manifestazioa diaspora kongoarrak antolatu du Europako hiriburuan, Kongoko Errepublika Demokratikoa (KED) jasaten ari den egoera salatzen. Martxok 23 (M23) mugimenduko soldadu ohi matxinatuek 2022an Ipar Kivuko Rutshuru mendietan berriz ere erasora pasatzea erabaki zuten. Herritarrak inoiz amaitu ez den testuinguru belikoan bizi dira, eta iturrien zein urteen arabera kopurua aldatzen bada ere, esan liteke 1990etik zortzi eta ha-

mar milioi hildako artean eragin dituela jadanik gerrak.

Baina manifestarietako genozidioa aipatzen dutenean, gutxienez azken bostehun urteetan etengabe errepikatutako krimen ikusezinaz ere ari dira: esklaboen trafikoarekin hasi, Belgikako Leopoldo II.ak kautxua-rekin aberasteko egindako izugarrikeriekin segi –orduan ere milioika hildako–, eta gaur egun mineralen esplotazioak ekarritako miseriarekin jarraitzen duen egoera perpetuoaz ere ari dira.

AEBetako Albanian Minerals meatze konpainia pribatuak egindako kalkulu baten arabera, KEDen lurpean dauden meatze baliabideek 35 bilioi dolarreko balioa izan dezakete. Eskulana eta aberastasun naturala, hori da kongoarren kondena bikoitza. Horregatik hiltzen di-

tuzte. Berdin herrialde erraldoiaren ekialdean, Afrikako Laku Handien ingurumarian, urrea eta diamanteak aurkitu eta Parisko zein New Yorkeko luxuzko bitxi-dendetan saltzeko; berdin hegoaldeko Katanga edo Luabako meategietan kobaltoa erauzi eta horrekin munduak konektatuta segi dezan behar dituen litio-ioizko bateriak elikatzen. Kobaltoak XXI. mendeko esklabotza handienetako bat olioztatzen du.

“Krimen baten froga soinean”, hitzak bizpahiru aldiz azpimarratu ditu Lasallek pentsakor, buruan jirabiraka duen ideia hori azaldu nahian. Oraingoan asmatu duela dirudi. Bilio du esaldiak. Kaiera sakelan berriz sartu eta pauso azkarrean itzuli da kazetaria iraganera, 120 urte atzera, Yangambiko bere etxola edo *paillote*-ra, Bernardo Atxagag Belgikaren menpeko Kongon girotutako *Zazpi etxe Frantziar* nobelarako sorturiko fikziozko pertsonaiaren haragitara. Bera izango dugu gidari denbora-lehorrerik ez duen bidaia honetan.

\* \* \*

**B**idaia honek ez baitu irteera portu bakar bat, ezta une jakin bat ere. Kongoren historia luzea bezain eskuraezina da mapa baten lau puntu kardinaletan kabitua arazteko. Akaso, Kongok jasandako krimenari hasiera sinboliko bat eman beharko bagenio, 1482 aipatuko genuke. Amerikako herri indigenek urte fatidiko bat duten bezala, afrikarrek ere bai-baitute berea, hamarkada bat lehenago.

Urte hartan, Diogo Cão kapitain militar nabigatzailea Loangoko badiaraino iritsi zen itsasontziz, Ekuatoretik hegoaldera europar batek ordura arte inoiz egin omen zuen bidaia luzeenean. Portugalgo Juan II.a erregearen aginduz hasi zuen espedizioa Lisboan hilabete batzuk lehenago. Helburua? Urrea. O Cabo de Catarinatik igaro ostean, izuga-



### **AEB-KO ALBANIAN MINERALS MEATZE KONPAINIA PRIBATUAK EGINDAKO KALKULU BATEN ARABERA, KONGON LURPEAN DAUDEN MEATZE BALIABIDEK 35 BILIOI DOLARREKO BALIOA IZAN DEZAKETE. ESKULANA ETA ABERASTASUN NATURALA, HORI DA KONGOARREN KONDNA BIKOITZA**

rrizko emaria zuen ibai zabal baten bokalearekin egin zuen topo. Hango bantu herriek oso ongi ezagutzen zituzten bere barruko sekretuak eta *Nzege* deitzen zioten kikongotarrez: ibai guztiak irensten dituen ibaia.

#### **HARRI BAT**

Konkistatzaile portugaldarrak *padrão* bat jarri zuen lurpean, harri bat, esateko mundu guztiari hortik aurrerako tierra orok jabe bat eta bakarra zuela. Gero, bigarren bidaia bat egin zuen eta aurrera jarraitu zuen ibaiko ur jauzietan gora. Beste *padrão* bat. Eta Kongoko erreinuko agintariekin tratutan ibili zen urre desiratuaren bila. Kondairak dio Cão krokodilo baten ehizan hil zela. Baina horrek berdin zuen jadanik, Kongoko bazterretan jarritako ditxosozko harri horiek milioika lagunak patua markatuko baitzuten ordutik aurrera. Loangoko badia hurrengo mendeetan europarren espedizio ugariren geltoki bihurtu zen, eta ez hori bakarrik, esklaboen trafikoa ikaragarri baten hasiera ere bai.

XV. mendean ontzigintza itsas suge gosetu baten gisan eboluzionatzen hasi zen, ozeanoan zehar bidaia luzeak egiteko. Karabelari bela latindarrak jarri eta hainbat aldaketa eginda, portugaldarrek lortu zuten txalupa hura nahikoa handia izatea

bere sabelean egun askotarako jaitena edukitzeko. Euskaldunak ere ez ziren karrera hartan atzean geratu, Espainiako erreinuak Amerikan egindako harrapaketa handientzako itsasontzi are handiago eta potoloagoak irten baitziren Kantauriko moiletatik. Eta konkistatzaileak ere bai. Eta portugaldarrak bitartekari zituztela, esklabotzan bete-beteen parte hartu zuten trafikantzaileak, eta munstro elikatzaileak...

Loangoko badian, Diosso herrian, harri handi bat dago. Ez da Diogo Cão jarri zuena. 2008an toki hura Munduko Ondareen zerrendan sartu zuen UNESCOk, esklaboak garraiatzeko portu nagusietakoa izan zelako XVI. mendetik XIX. mendera. Monolito bat eraiki zuten ospatzeko: *Karabanen irteera. Loangoko herria, gutxi gorabehera 2 milioi esklabo ontziratzen lehen tokia*, dio harlauza ilun soil batek oinean. Ferdinand Lassallek arkatzarekin apuntatu du kaierean: “2 milioi beltz”. Zenbat da hori? Zenbat kanabera ebaki dezakete lau milioi eskuk? Eta zenbait kautxu zurrupatu edo kobalto erauzi? Galdetu dio bere buruari.

#### **POOL MALEBO**

Lau mendetan 12,5 milioi pertsonatik gora bahitu eta eraman zituzten Afrikatik Amerikara, eta horietatik ia 6 milioi Loangoko eta Angolako kostaldean ontziratatu zituzten, Slave Voyages datu basearen arabera. Lehen itsasontzia 1514an irten zen Kongoko ibai ertzetik, portugaldar bandera zeraman, 237 esklabo, eta Vigora iritsi zenerako 168 besterik ez ziren bizirik geratzen.

Baina “esklabo” edo “afrikar” hitz homogeneoak erabilia ezin gara sinplifikazioetan erori. Hamaike erreinu eta herritako jendeak esklabizatu zituzten. Lehen fase batean, adibidez, Pool Malebo ingurua izan zen esklabo merkatu handiena. Kongo ibaiak sortzen duen aintzira natural horretan,



VANDELOISE BERTRAND / HANS LUCAS

Kongoko diasporako herritarrek protestak antolatu dituzte European, beren herrialdeak jasaten duen genozidioa salatzeko. Irudian, manifestari bat Bruselan, 2024ko otsailean.

egun, Kinshasa eta Brazzaville kokatzen dira –KEDeko eta Kongoko Errepublikako hiriburuak–, baina garai haietan Teké herriak kontrolatzen zuen. Iparralderago, aldiz, bobangiak bizi ziren, Ubangi ibaia- ren ibilgutik gorako lurren jabeak, hauek ere esklabotzan belauetaraino sartuak. Gero, trafikoa Loangoko erreinura zabaldu zen, eta azken fase batean Niari bailaratik ere bideratu zen tsunami baten gisan.

Lurralde hura gertutik ikertu duen Arséne Francoeur Nganga historialari kongoarrari zor dizkio- gu xehetasun horiek guztiak. Berak dioenez, Pool Maleboko eskuinaldeko ibai bazterrek funtsezkoak izan ziren merkatu asegaitza esklaboz hornitzeko, eta Brazzabillen orain udaletxea dagoen eraikina zen epizentroa. Toki desberdinetatik harrapatutako jendeak pilatu, eta hortik zuzenean eramaten zituzten karabanetan itsasertzera- ino, europarren eskuetan uzteko: “Afrika erdialdeko esklabo merkatu handiena zen, baina tamalez he- men ez dago plakarik ezta ekital- dirik ere hori gogoratzen duenik”, dio ikerlariak Ziana.Tv diaspora kongoarraren telebista katean.

Loangon ere, pintura altxatzen hasia zaion monolito hotz horretatik harago, Lassallek ez du apenas arrastorik ikusi. Museo txiki bat topatu du Diosso herrian, hango ohiturak eta artea erakusten di- tuena. Eta parean arbola handi bat. Museoko zaintzailea hurbildu zaio orduan. Joseph Kimfoko izena du eta urteak daramatza museoaren egoera kaskarrarengatik gober- nuari kezaka. Kazetariari esan dio- nez, antzina esklaboei zapzi bira emanarazten zizkieten arbolari, “itzulerarik gabeko” bidaia hasi au- rretik iragana ahaztu zezaten. Me- moria erreseteatu, gailendu dadin otzantasuna. Badira halako arbola gehiago Afrikako mendebaldeko kostaldean.

# “Jadanik ez gara zuen tximinoak”

Patrice Émery Lumumba

Centre Tricontinental erakundeak kongoarren erresistentzia historikoa deskribatu du *The Congolese Fight for Their Own Wealth* (Kongoko herriak bere aberastasunaren alde borrokan dihardu) dossierrean (2024ko uztaila, 77. zk). Kolonialismo garaian, Belgikako *Force Publique*-k nekazarien artean ezarritako izuari kolektiboki erantzun zioten, plantazioak eta tren-estazioak erasota.

1915ean, Maria N’koi lider espiritualak gidatuta, matxinatu egin ziren zerga kolonialen kontra egiteko. Agintariek N’koi atxilotu eta erbesteratu zuten, eta matxinoak mendian babesu behar izan ziren. Katangako meatzeetan, berriz, kolonizatzaileak beldur ziren errekrutatutako meatzari esklaboek langile klase kontzientzia hartuko ote zuten. Hori eragozteko, afrikar “basakeriaren” mitoan oinarrituriko biolentzia genozida erabili zuten, baina “langile klase afrikarrak hazten jarraitu zuten”.

1940an Alemaniak Belgika okupatu zuen, eta hankaz gora jarri zuen metropoli europarra garaiezina zen ustea. Kongoarrek ordura arte *Bula Matadi* deitzen zioten Belgikako estatuari (“Harri puskatzailea”, Henry Morton Stanleyri jarritako ezizena). 1941ean Katangako Kikole meatzean greba hasi zuten: “Keniako eta Amerikako beltzek European zuriak garaitu badituzte, zergatik

ezin ditugu hemen ere garaitu?”, zioten. Bigarren Mundu Gerra amaitzerako herritarren deskontentua orokorra zen. Hala, 1950eko hamarkada amaieran Belgikak bere koloniaren gaineko kontrola erabat galdurik zeukan. 1960ko ekainaren 30ean, independentzia irabazi zuten.

Patrice Lumumba (1925-1961) lehen ministro izendatu berriak bere lehen diskurtsoan 80 urteko zapalkuntza salatu zuen, Belgikako Boudewijn erregea aurrean zuela, eta garbi hitz egin zuen: “Jadanik ez gara zuen tximinoak”. Lumumbak justizia sozialaren alde erakutsitako jarrera ez bide zitzairen gehiegi gustatu Kongoko meatzeetan interesak zituzten estatubatuar eta belgikarrei, eta CIAren eta Belgikako zerbitzu sekretuen laguntzaz torturatu eta desagerrarazi zuten buruzagi ezkertiarra.

Lumumbaren hilketak, Katangaren behin behineko sezesioak, Mobutu Sese Sekoren diktadurak... ez zuten lortu mezua guztiz ezabatzea. Gaur egun, benetako burujabetzaren eta duintasunaren aldeko borroka jarraitzen duela dio Centre Tricontinentalek, are gehiago “panafrikanismo berritzaile bat Mendebaldeko Afrika eraldatzen ari denean”. Dossierrean Frantz Fanon (1925-1961) iraultzaile anticolonialista karibetarrak esandakoa dute gogoan: “Gu guztion patua jokoan dago Kongon”.

Portugaldarrak sekula ez ziren gehiegi barneratu Kongon barrena, nahiago izan zuten tokiko buruzagien alabekin ezkondu, eta haien kultura eta hizkuntza menderatzen zuten *tangomão* bihurtu, giza-haragiaren bitartekari izateko. Agian horrela hobeto konprenituko dugu nola demontre mantendu zen hiru mendez baino gehiagoz barrunbe hura europar espoliatzaileen atzaparretatik hain urrun. 1851n, baina, David Livingstone izeneko mediku eskoziar batek, kinina pote bat poltsikoan zuela –orduan deskubritu zen efikaza zela malariari aurre egiteko– Zambezi ibaia bapoz gurutzatu zuen ur-lasterraren kontra. Eta pentsatu zuen: “Egongo al da antzekoren bat Afrikako bihotzera eramaten duena?”

Lassalle mango erraldoien hosto eta adar artetik dabil. Esklaboen oinatz biluziei segika Loangoko itsasaldera doan bidezidorrean sartu da. Esklaboen ondorengoentzat berezia da mangoa oso. Portugaldarrek XVI. mendean eramane zuten fruitu-arbola Afrika-ra, etxekotuta; hankak dandarrez itsasontzirantz bidea egiten zuten gizagaixo haiek jan eta botatako hazien kumeak omen dira orain Loangon ikusten diren 300 urte baino gehiagoko mangoak.

Hori dio kondairak, baina orain ere, jadanik berdin du. Eraman zituzten. Bi milioi. Sugearen sa-belean denak. Labarrera iritsita-koan Atlantiko zabalean jarri ditu begiak kazetariak. Ez du olatuen soinu erritmikorik aditu, mandril baten garrasia baizik, Yangambiko ibai ertzeko hondartzan koñak kopari eragin bitartean entzuten zituzten txilioen tankerakoa.

## KOBREAREN GERRIKOA

Livingstonek hamabi urte eman zituen Afrikako Laku Handien inguruak esploratzen Niloren itur-

burua aurkitu nahian. 1872an Luabala ibaira iritsi zen. Kito. Arabiar esklabo trafikatzailerik ez zioten utzi metro bat harago joaten. Etsita eta gaixotuta Tanzaniara itzuli zen, eta handik gutxira izan zen elkartze famosoa Henry Morton Stanleyrekin. Sendagile misiolari bat eta korrespontsal arrazista bat. Bi gizon zuri lurralde oso baten destinoaz kontu egiten... *I presume*. Klak! entzun da momentu zehatz horretan, Lassalle-ren Kodak kamera zaharrak gertara historikoa hilezkortu du.

Lualaba gaur egun KEDeko hegoaldeko probintzia da, eta Kobrea-ren Gerrikoaren mendebaldean dago. Ehunka kilometroko ferraformadun hobi erraldoi eta aberatsari deitzen diote horrela, munduan parekorik ez duena. Lualabaz gain, Katanga Garaia eta Zambiak ere eremu zabalak hartzen ditu. Kobrea, nikela eta kobalto dira hango metal ugariak, baina badira beste batzuk, %75eko kontzentrazioa duen uranioa esaterako. Bigarren Mundu Gerran, bonba atomikoa sortzeko materiala Katangako Shinkolobwe meatzetik lortu zuten estatubatuarrek; Union Minière konpainia belgikarraren esku zegoen meatzea garai hartan, eta inork ez daki plan sekretu hartan zenbat lagun hil ziren uranioa erauzten derigorrez lan egiten kutsatuta.

Zergatik da hain berezia zonalde hori? Dirudienez, tektonikaren kapritxo baten ondorioz kobrea eta kobalto meak lurrazalek sakonera gutxian daudelako. Geruza freatiketik behera, kobaltoa carrollita mineralarekin batera agertzen da, eta hortik gora berriz, oxidazioaren ondorioz heterogenita forma hartuta: “Katangako kobalto hobiak paregabeak dira. Kilometro askotako blokeak osatzen dituzte eta mahaspasek opil batean lez flotatzen dute”, azaldu dio Murray Hitzman geologoak *Cobalt Red* (Kobalto Gorria) liburuan Siddharth Kara idazleari.



**AKASO, JASANDAKO KRIMENARI HASIERA SINBOLIKO BAT EMAN BEHARKO BAGENIO, 1482 AIPATUKO GENUKE. AMERIKAKO HERRI INDIGENEK URTE FATIDIKO BAT DUTEN BEZALA, AFRIKARREK ERE BAI-BAITUTE BERA, HAMARKADA BAT LEHENAGO**

### MEATEGI GURPILDUNAK

Trantsizio energetikoa kobalto bezalako lehengai kritikoen ustiapenean oinarritu dute Mendebaldeko herrialdeek. Energiaren Nazioarteko Agentziak egindako txosten baten arabera, 2017tik 2022ra kobaltoaren eskaria %70 hazi zen munduan, eta nikelarena %40. Berriztagarrien sektorea dago

hazkunde horren atzean, aerosorgailuek eta eguzki-plakek metal eta lur arraro kantitate handia behar baitute funtzionatzeko (litioa, kobalto, neodimioa, kobrea, zilarra, galioa, grafito...). Eta auto elektrikoekin ere gauza bera gertatzen da; mugikortasuna elektrifikatu ahala eskaria izugarri handituko dela diote adituek, baina ez dagoela denentzako adina.

*Elhuyar* aldizkarian (353 zk.) Egoitz Etxebestek argitaraturiko erreportaje batean “meategi gurpildun” gisa deskribatu ditu auto elektrikoak. “Gelako elefante handia da auto elektrikoak”, dio Zaragozako Unibertsitateko ikerlari Alicia Valerok erreportaje berean. Horrelako auto arrunt batek 13 kilo kobalto, 40 kilo nikela eta 9 kilo litio eraman ditzake. Material horien agortze-maila ikusita, Valeroren ustetan “mundu osoan ezin izango da iparralde globalean planteatu den trantsizio energetikoa egin”.

Beraz, alde batetik, beste tokietan oso urria den lege-altuko kobalto erruz eta eskura daukagu Kongoko Errepublika Demokratikoan –Lurreko erreserben ia %60–, eta bestetik, metal hori baitezpadakoa bihurtu da interkonexio globale-rako diseinaturiko eredu energetikoan... Ez da harritzekoa afrikar herrialdea izatea interes ekonomikoan eta esplotazioaren munduko puntu beltzetako bat.

## CONGOGATE

Siddharth Karak bertatik bertara ezagutu ditu Kongoko meatzeetan gertatzen diren esplotazio egoerak. AEBetako idazle, irakasle eta aktibistak –jatorriz indiarra da– badu esperientziarik XXI. mendeko esklabotza ikertzen. Mundu erdia gurtzatu du sexu-trafikoarekin edo haur-esplotazioarekin zerikusia duten kasuak dokumentatu nahian, eta hainbat lan idatzi ditu horiei buruz erreferentziatzko hedabideetan, CNN, *The Guardian* eta BBC, kasu.

Kobalto Gorria liburuan –gaztelaniaz Capitán Swing argitaletxeak kaleratu du *Cobalto Rojo. El Congo se desangra para que tú te conectes* (Kobalto Gorria. Kongo odolusten ari da zu konektatu zaitez) izenburupean– ezin hobeto deskribatzen ditu kongoarrek kobalto esku hutsez ateratzen jasaten dituzten baldintzak. Baina ez hori bakarrik: hornitzaileen arteko lotura ere egiaztatu du. Multinazionalak diote euren hornidura katea “gardena” dela, baina Karak bere begiz ikusi du nola aprobetxatzen diren haurren eta eskulangile esklabizatuen lanaz.

Kate horretan daude enpresa teknologiko ezagunak (Apple, Microsoft, Google...), bateria ekoizleak (CATL, Samsung, Panasonic...), eta meatze konpainia handiak zein bitartekari txinatarrak –Pekinekin “mendeko kontratua” sinatuz geroztik–. Lurpetik ateratzen denetik Londresko Metalen Burtsaraino,



## LURRALDEA AHALIK ETA GEHIEN ZUKUTZEKO, FUNTZIONARIO BELGIKARREK TERROREA ZABALDU ZUTEN. ESATERAKO, FAMILIA BAKOITZARI KAUTXU KOPURU BAT ESKATZEN ZIOTEN, ETA OIHANETIK HORI GABE ITZULIZ GERO, SENIDEETAKO BATI ESKUA MOZTEN ZIOTEN

kobaltoak egiten duen bide luzean dagoen eroskeria frogatu du egileak, eta kongoarrei egiten zaien baliabide lapurretari zifrak jarri dizkio: bilioika dolar. Zenbat da hori, apenas 6.900 miloi dolarreko aurrekontua duen herrialde txiro batentzat? *Congogate* deitu dio batek baino gehiagok eskandaluari, ez arrazoi gutxiz.

## HORROREA

Ferdinand Lassallek kapeluari hegala jaitsi dio, ez du askorik inpresionatu datu horrek. Berak badaki noraino iritsi daitekeen ustelkeria eta krudeltasuna, gizon zuriaren kodizia tartean sartzen denean. Yangambin ikusi zuen; beltz baten biziak ez zuen balio errifleko bala-zorro batek adinbat... Kaiera atzerantz pasatzen hasi da bizkor, orrialde artean *Le Peuple* egunkariko errekorre bat topatu duen arte, 1904ko ekainaren 11ko data darama: “*Une immense cuve dans laquelle fermentent les atrocités, les oppressions et les cruautés*”. Basakeriak, opresioak eta ankerkeriak etengabe irakiten duten upel ikaragarri bat, halaxe deskribatzen du belgikar kazeta ezkertiarrek Leopoldo II.aren Kongoko soto partikularrean gertatzen ari dena.

Urte horretan, Kongoko Estatu Libreko kontsul britainiar Robert Casementek egindako txosten bat eztabaidatu zen Erresuma Batuko Komunen Ganberan. *Report* hori akuilu izan zen belgikar monarka Kongoko lurraldeetan zituen jabe-tzez desegiteko. Baina hango desmasien kontrako nazioarteko kanpaina lehenagotik zetorren.

Liverpooleko ontzigitza enpresa bateko enplegatuak, Edmund Dene Morelek, 1890eko hamarkadan deskubritu zuen milioika frankotako desfasea zegoela Kongoko Estatu Libretekin Anbereseko portura inportatzen zen bolian eta kautxuan. Gainera, kongoarrei Leopoldo II.aren kolonian ematen zitzaizkien tratuari buruzko testigantzak ere jaso zituen misiolarien eskutik. Norbait asko ari zen aberasten esplotazio horren kontura. Urte bertsuetan, idazle bokazioa zuen marinel batek ibaian gora egin zuen, ilunpeen bihotzera.

“Horrorea! Horrorea!”. Hori bai, ez du oihera egiten Joseph Conraden *Heart of Darkness* (*Ilunbeen bihotzean*, 1899) nobela ezagunaren protagonistetako batek, gaixorik, aluzinatuta, hil aurreko herio unee-tan. Zer ikusi zuen, eta zer egin, belgikarren Kongoko boli-esplotazio horietan? “Liburu honetan, ez dago berezko hasierarik, ez amaierarik, zeren amaiera hasierara bueltatzea baita, zibilizazioaren hasierara eta Londoneko gauera”, dio Iñaki Ibañezek *Ilunbeen bihotzean* (Ibaizabal, 1990) euskarazko itzulpenaren sar-reran. Goazen ez-hasierara beraz, Kongoko oihanak belgikarren esku geratu ziren gairara.

## ESKU BAT

Leopoldo II.ak Association Internationale Africaine (AIA) izeneko elkarte sortu zuen 1876an, urte askotatik buruan zuen plan bat aurrera ateratzeko. Amerikako espainiar kolonia esklabisten sistema iker-





Baina XX. mende hasieran kautxua-  
ren merkatua ahitzen hasi zen, eta  
prezioek behera egin zuten. Segu-  
renik, horrek pisu handiagoa izan  
zuen –nazioarteko edozein presio-  
kanpainak baino– Leopoldo II.ak  
1908an Afrikako kolonia Belgikari  
ematea erabakitzeke unean. Hori  
bai, 50 milioi frankotako “indemni-  
zazioa” jaso zuen bere eskuzabal-  
tasunagatik.

### NARRATIBA MUGATUA

Belgikarrek ez zuten burua gehiegi  
estutu behar izan asmatzeko euren  
erregearen oparia nola probestu:  
kobrea zen kautxu berria, eskla-  
boak tresna zaharra. Dzar-dzar-  
dzart. Katangarrek aspaldi zekiten  
kobrea nola erauzi malakita mi-  
neraletik, eta kolonizatzaileek se-  
gituan bota zioten begia. 1906an  
Union Minière du Haut-Katanga  
(UMHK) konpainia sortu zuten, eta  
urte gutxira Élisabethville deitu  
hiriaren inguruan sekulako mea-

tzeak ireki zituzten. Katangarrek  
nahikoa esku ez zituztenez, beste  
tokietatik eramandako milaka es-  
klabo esplotatu zituzten. Dzart.

Kongoren 1960ko independen-  
tziaren ostean, Patrice Lumumbak  
irekitako esperantzarako leiho la-  
burra kolpean itxi zuten AEBetako  
eta Belgikako zerbitzu sekretuek  
(ikus koadroa) eta Mobutu Sese  
Sekok 30 urtez agindu zuen Zaire mo-  
duan berrizendatutako herrialde  
erraldoian –kikongotarren *Nzege*  
hitzaren zoritxarreko transkripzio  
zabar bat-. Ustelkeria, harrapaketa  
eta desberdintasuna nagusitu zi-  
ren. Gero, 1997tik aurrera Kongoko  
Errepublika Demokratikoa bihurtu  
zen, eta Laurent Desiré eta Joseph  
Kabila aita-semeen eskutan egon  
zen herrialdea, berriz ere euren  
probetxurako biolentziaz arpilatua.

Ruandako genozidioaren erre-  
plikak, 1997an hasitako “Kongoko  
Bigarren Gerrak” eta Mendebalde-  
ko zein Afrikako beste herrialdeen

esku hartzeak, milioika hildako eta  
hamaika ankerkeria eragin ditu  
beste hiru hamarkadotan. Eskuak,  
sudurrak, buruak... berriz ere.  
2023an KEDen barruan zazpi milioi  
lagun zeuden desplazaturik gataz-  
kengatik, Genevako Migrazioaren  
Nazioarteko Erakundeak (IOM)  
emandako datuen arabera.

Gaur egun presidente den Felix  
Tshisekedi Konstituzioa berrikusi  
nahi du, Kivu bezalako ekialdeko  
probintzietan M23 taldearekin eta  
beste matxinoekin gerra egitearen  
aitzakian. Askoren ustez, baina, hi-  
rugarren agintaldi baten bila dabil  
Tshisekedi: “Hainbat ikerlari, mani-  
festazioen errepresioa aurreikusita,  
dena dokumentatzeko beharra ari  
dira azpimarratzen”, ohartarazi du  
Oskar Epelde kazetariak Afrikatik  
Euskadi Irratirako egin ohi dituen  
entzunezko kronika zirrargarri  
horietako batean.

Eskuraezina zaigu Kongoren his-  
toria, hala da bai, baina ezin pentsa



↑ Kolonizatzaileek hasiera batean bolia esplotatu zuten Kongon, gero kautxua eta kobrea, eta orain kobaltoa da material preziatuenetakoa.

→ Katanga Garaia eta Lualaba probintzietan daude kobalto meatze nagusiak, eta ingurumen-hondamendi izugarria eragiten ari dira, errekek kutsatu eta hauts toxikoa zabaltzen baitute edonon.

dezakegu sufritzen duen krisiaren kausa bakarra bere mine-ralak eta nazioartean interesak direnik. “Narratiba mugatu batek Kongoko gatazkaren dinamika gehiegi sinplifikatu dezake, eta faktore lokalek duten garrantzia gutxietsi”, dio François Polet Centre Tricontinentaleko ikerlariak. Erakunde horrek *Congo (RDC). Reproduction des prédations* (Kongo. Harrapaketen erreproduktzioa) aldizkari berezia kaleratu du, Kongokoak bertakoak diren hainbat adituren artikuluekin, Poletek koordinatuta. Begirada gupidatsurekin, soilik lortuko dugu existitzen ez den eta “izan daitekeen” Kongo bat marraztea mapa honetan, benetan den herrialdea kontatu baino.

## KUTSADURAREN ERRETRATUA

Élisabethville. Lumumbashiren antigoaleko deitura koloniala da. Kinshasatik 2.200 kilometrorra. Katangako hiriburua eta KEDeko bigarren hiri populatuena. Bi milioi biztanle. Eguntentian eguzkia berriz ere jauzi batez esnatu da eta minutu batean argiztatu ditu hiriko bazter guztiak. “Kapusinskik arrazoi”, dio ahots batek ahapeka, errainuek milioika hauts partikula hegalaria barreiatzen dituzten bitartean.

Kontinente honetan argiak gainezka egiten duela idatzi zuen idazle poloniarrek *Heban* maisulanean: dena da izpi, dena

leinuru, arras distiratsu dena. Klak-klak. Kodaka zorroan sartu du Ferdinand Lasallek, eta lurrezko karrikan astindu ditu narruzko botak, dotorezia apurrik galdu gabe. Hautsa pausatu denean ezusteko paisaia batekin gertatu da ordea.

Kongoko meatzaritza lurraldeetan, izan Katangan nola Lualaban, “eraikinak, etxeak, errepideak, pertsonak eta animaliak krakaz estalita daude”, azaltzen du Siddharth Karak Kobalto Gorria liburuan. Berdin Lumumbashin, nola Kipushin edo Likasin. Likasin, adibidez, “atmosfera kutsadurak maila arriskutsuak hartu ditu. Ke, hauts eta errauts laino itxi batek eskualde osoa itolarrian du”, dio Karak. Ez da ez lore, ez errekatxo, ezta txoririk ere ageri. Desagertu da natura. Okre koloreko akuarela soil bat dirudi, meatzaritzak XXI. mendean eragindako ingurumen-hondamendiaren erretratu perfektua. Klak.

## ESKLABO ARTISANALE-AK

Étoile izeneko meatzera egin du gure gidariak, Lumumbashiko erdigunetik ez urrun. 1911n belgikarrek Kongon irekitako lehena da. Mobutuk 1967an UMHK konpainia nazionalizatu eta haren ordez Générale des Carrières et des Mines (Gécamines) sortu zuenean, bere eskuetan geratu zen. Hamarkada askotan aberaste pertsonalerako erabili zuen enpresa esta-

# Apple, Apple... beldurtzen gaituzte zuen bateriek

**K**obaltoa material funtsezkoa da auto elektrikoaren autonomia-ibilgailuak egin dezakeen kilometro kopurua- handitzeko. Litio-oi-zko baterien katodoetan erabiltzen da, energia dentsitate handietan bateria egonkor mantentzen duelako, eta behin eta berriz kargatu eta deskargatzeko zikloi hobeto eusten dielako. Orduan eta dentsitate gehiago, bateriak karga handiagoa gorde dezake, eta autoak autonomia gehiago du.

Auto elektrikoentzako baterien kostua etengabe merkatu da azken urteetan eta aurten kWh 100 eurora jaitea espero dute adituek. Zer esan nahi du horrek? Gasolioez funtzionatzen duten autoen parean egongo litzatekeela laster. Izan ere, kobaltoaren prezioa inoiz baino baxuago dago merkatuan, baina hori Kongon metala erauzten duten langileen bizkar da.

Arte telebista katean frantsesez zein gaztelaniaz ikusgai dago *Cobalt, l'envers du rêve électrique* (Kobaltoa, trantsizio energetikoaren alde iluna) dokumentala, Quentin Noirfalisse zinegileak eta Arnaud Zajtman kazetariak zuzendua eta 2023an Biarritzeko Dokumentalen Nazioarteko Jaialdirako hautatua. Bertan diote, nazioarteko komunitatearen “agenda” energetikoak karbonoa utzi eta auto elektrikoaren alde egingo badu, Kongoko mineral estrategikoak beharko dituela: “Eta esan daiteke nagusia kobaltoa dela”.

Dokumentalaren hasieran eta amaieran herritarren abesbatza batek, meatzearen oinetan, honela kantatzen du:

Nokia, Samsung, Huawei, Tesla.  
BMW, General Motors, Motorola (bis)

*Apple, Apple... apelatzen dugu zuen laguntza*  
Beldurtzen gaituzte zuen iraultza digitalek

*Apple, Apple... apelatzen dugu zuen laguntza*  
Beldurtzen gaituzte zuen bateriek



tala diktadoreak, 1990ean finantza krisia etorri zitzaion arte. Geroztik, Kongoko Gobernuak, meatzeen ustiapen eskubideak atzerriko multinazionaleri saldu dizkie etengabe, eta gaur egun horietako gehienetan Txinako enpresa erraldoiak daude, Gécaminesen partaidetza txiki batekin eredu “mistoa” osatzen dutela.

Diesela edo esklabo lana. Meatze batean ez dago beste indar eragile-rik, hala esan ohi du Antonio Aretxabala geologoak. 1997an *artisanale* deituriko meatzaritza ezartzen lehena ere izan zen Étoile: langileek esku hutsez eta euren kabuz –gehienetan meatze gunetan modu klandestinoan– kobaltoa erauzten dute, gero *négociants* edo bitartekariak lau sosen truke saldu eta bueltan-bueltan materialak berriz ere multinazionalen kamioietan amaitzen du nahastuta. Kararen esanetan, Kongotik esportatzen den kobaltoaren %30 horrela produzitzen da. Eta bestalde, kontuan eduki behar da modu industrialean erauzitakoa baino hamar edo hamabost aldiz “lege” edo kalitate handiagoa duela heterogenita *artisanale*-ak.

Sistema opaku horren bidez lukturatzen dira konpainiak, baina zeinek ordaintzen du? Putzu klandestinoetan istripuak gertatzen dira, haur esplotazioa dago, zigorrak daude... Tilwezemben, esaterako –Lualabako probintzian, Kolwezi hiriburutik 30 kilometrora dagoen meatzea–, bi mila edo hiru mila haur ikusi zituen Karak “edozein unetan”, egunean dolar baten truke lanean. Ez bazieten buruzagiei obeditzen, dzart! Batzuk garraiorako edukiontzi ilunetan ixten zituzten “janik eta urik gabe, bi egunez”.

Esklabotzak jarraitzen du Kongon. Zorra da *chicotte* hoberena: haurrak behartzen dituzte lurrean zuloa egitera mea aurkitu arte, egunero miseria bat ordainduta, eta gero, dirua kitatzearen aitzakian preso edukitzen dituzte heteroge-



**“AITA DUELA HIRU URTE HIL ZEN –AZALDU DU MAKANOK–. SEME NAGUSIA NAIZ NI, ETA FAMILIARENTZAT DIRUA IRABAZTEKO ARDURA NEUKAN ORAIN. FUNGURUME HEGOALDEKO ZELAIETAN HASI NINTZEN ZULATZEN LAGUN BATZUEKIN”**

nita preziatua esku biluziekin ateratzen. “Hornidura-katearen goialdean dagoen enpresaren batek esan dezake, egiazki, bere gailu edo autoen kobaltoa ez dela horrelako merkatu batetik atera?”, bota du airera idazleak liburuan.

### MAKANO

Tilwezembetik ez oso urrun KEDeko kobalto meatze handiena dago, Tenke eta Fungurume hirien artean kokatuta. Izena ere ez da originala: Tenke-Fungurume Minning edo, mundu guztiarentzat, TFM. 1.500 kilometro koadro. Londres Handiko metropolia adina. Lapurdi baino

handiagoa. 2016an Freeport multinazionalak China Molybdeum Company (CMOC) enpresari saldu zion meatzearen bere zatia eta, hala, CMOC munduko kobalto produzitzaile handiena da egun, sektore horretako beste erraldoi Glencore konpainia suitzarraren aurretik.

Lassallek Fungurume hiriaren hego-mendebaldera egin du, auzotegi infinitu batera. Burua makurtu du adreiluzko etxolako atetik kabitzeko, eta sartu orduko lepoaldeko zetazko zapia eraman behar izan du ahora. Airea atsituta sumatzen da hor barruan, usain kirasdun batek dena hartu du. Lurrean, eserita eta indarge, mutil bat ikusi du. Gorputz-adar meheak ohol urratu batetik kanpora ateratzen zaizkio. Zein da? Non ikusi du eszena hori lehenago?

Makano du izena. 16 urte besterik ez dauzka eta Kobalto Gorria liburuan irakur dezakegu bere testigantza: “Aita duela hiru urte hil zen –azaldu dio egileari–. Seme nagusia naiz ni, eta familiarentzat dirua irabazteko ardura neukan orain. Fungurume hegoaldeko zelaietan hasi



nintzen zulatzen lagun batzuekin. Putzu txikiak zulatzen genituen, batzuetan mea aurkitzen genuen, beste batzuetan ez. Ez genuen asko irabazten eta pentsatu genuen hobe zela kontzesiora joaten hastea”.

CMOCek TFM barruan duen esplotazio erraldoia da *kontzesioa*. Gauero isilpean sartzen ziren, eta ordu askotako lanaren ondoren, Makanok bizikletarik ez zuenez, oinez garraiatzen zuten 40 kilogramoko heterogenita bete zaku. Kobalto ona, kalitatezkoa, baina hala ere zaku horrek bi dolar baino ez zuen balio.

2018ko maiatzaren 5ean, gau osoa zulatzen pasa eta gero, zakua bizkarrean hartuta putzutik irte-

ten ari zela amildu eta istripua izan zuen mutilak. Gogoratzen duen hurrena da Kolweziko ospitale batean zegoela: “Hanka eta aldaka txikiturik nituen, alde guztietatik zauriak, eta burua puztuta”, dio. Familiak, zeukan diru guztia gastatu zuen hil hala biziko ebakuntza egiteko; medikuek eskuineko hankan barra metaliko luze bat sartu zioten, nola hala, eta astebetetera etxera bidali zuten. Makanok zauri sakon bat du zornatua eta sukarrak jota dago. Antibiotikoak behar ditu, shockean sartuko ez bada. “Badakit nire semea hiltzen ari dela. Ospitalera joan behar du, baina nik ez dut dirurik”, azaldu du han gertuan den Rosine amak.

## SHABARAKO MEATZEAN

Duela sei urte Kongora lehen bi daia egin zuenetik, Siddharth Karari askotan suertatu zaio egoera gogorrak bizitzea. Fungurumen, milaka herritar euren etxeetatik kanporatu dituzte meatzea jartzeko, ezer gabe utzi dituzte, eta egin dezaketen gauza bakarra da minerala euren kabuz esplotatzea, ilegalki bada ere. Baina konpainia multinazionalak meatzera sartzea eragozten dienean, tentsioa leher-tu egiten da. 2019ko ekainean bezala: soldaduak bidali eta hainbat lagun hil zituzten tiroka. Nola atzoko kolonizatzaileen errifleetatik, hala irteten dira gaurko bala-zorroak kalaxnikovetatik.



SIDDHARTH KARAK SAREAN ZABALDUTA

↑ Shabarako meatzean, 15.000 langile etengabe aritzen dira kobaltoa esku hutsez erauzi eta zakuetan garraiatzen krater handi batean.

← Belgikako Leopoldo II. erregearen omenezko eskulturak margo gorri sabotageatu zituzten Black Lives Matter mugimenduko kideek 2020an.

Sarritan, meatzari *artisanale*-ek kooperatibak sortzen dituzte, ustez euren baldintzak hobetzeko. Luialbako probintzian bi dira nagusiak: Coopérative Minière Maadini kwa Kilimo (CMKK) eta Coopérativa Minière Kupanga (COMIKU). Teorian, erregistro-kartilen bidez kontrolatzen dute jarduera eta “Meatzaritza Kode” bat dago, baina praktikan eroskeria eta lan-esplotazioa nagusi dira hemen ere. Hain justu, kooperatiba horietako baten meatzean, Shabara izenekoa, ikusi zuen Karak inoiz ahaztuko ez duen irudia: “15.000 gizon eta nerabe mailuarekin eta palarekin ari ziren, garrasika krater baten barruan, apenas mugitzeko espaziorik gabe, eta arnasarik hartzeko ere ez”. Klak-klak-klak. Argazkiak munduari bira eman dio eta albiste agentzia nagusienetan agertu da.

## ELODIE

Kaosa itxurazkoa da, desordena horretan mailak eta hierarkiak baitaude beti. Familia edo taldeka antolatzen dira askotan, eta bakoitzak bere funtzioa dauka. Gizonezkoek heterogenita erauzten dute tranpa hilgarri diren tunel arriskutsuetan, gaztetxoek zakuak garraiatzen dituzte, haurrek materiala txikitu, eta haurragoek garbitu metal isuriek



SIDDHARTH KARAK SAREAN ZABALDUTA

Kobalto horniduraren kate-mailan azkenak eta galtzaile handienak emakumeak dira beti. Lan astunak egin eta soldaduen erasoak jasaten dituzte.

kutsaturiko ur putzu ustelduetan. Kate-maila horretan azkenak eta galtzaile handienak emakumeak dira beti; are gehiago umezurtza baldin bazara.

Elodie 15 urte zituen Karak ezagutu zuenean. Malo lakuaren in-

guruan altzairuzko barra batekin lurra kolpatzen ari zen kobalto bila. 0,55 dolar egunean. Apenas zen “hezur eta zurda” eta ez tul bakoi-tzarekin saihestak hautsiko zitzaizkiola zirudien. HIESA egoera aurretuan zuen, idazlearen irudikoz.

Aita, Glencore multinazionalaren meatze batek lurperatu zuen betiko duela zenbait urte; ama, infekzio baten ondorioz hil zen, ur zikinetan kobalto garbitzeagatik. Elodie haurtxo txiki bat zeukan bizkarrean, sare egindako zapi ziztrin batekin helduta. Bere haurtxoa. Ongi irakurri duzu, 15 urte zituen Elodie. Eta bizirauteko, derrigortuta zegoen soldaduen artean prostituitzera. *Muango yangu njoo soko*, zioen, nire gorputza nire merkantzia da: “Beretzat prostituzioa eta kobalto bila zulatzen ibili beharra gauza bera ziren”, gaineratu du Karak.



Automobilgintzako enpresentzako ez ezik, enpresa teknologiko ezagunentzako bateriak egiteko kobalto, esplotazioan oinarrituriko merkatu opaku batetik dator.

# Hiru hamarkada gatazketan

\*\*\*

**A**mnistia Internazionalak salatu duenez, Kongoko Errepublika Demokratikoan gutxienez 40.000 haur ari dira lanean meatzeetan, eguzkia baino ez dutela gosaltzen. Erakunde berak 2016an kaleratutako beste dossier batean kobaltoaren ibilbidea ikertu zuen lehen aldiz: prozesatu ostean baterien osagaiak fabrikatzen dituzten Txina eta Hego Koreako enpresen esku geratzen da, hauek bateria ekoizleei saltzen dizkiete osagaiak, eta teknologia eta automobilgintzako enpresa ezagunen produktuetan amaitzen dute azkenik. Apple, Volkswagen, Tesla, Sony, Dell, Vodafone, Lenovo, Renault, Huawei... 29 multinazional zeuden inplikaturak, eta Amnistia Internazionalaren arabera, gehien-gehienek ez dute ezer egin egoera aldatzeko.

Has gaitzen Kongoz hitz egiten. *Let's start*. Eta has gaitzen hitz egiten zergatik sufritu behar duen hego globalak Mendebaldearen ongizatearen zama oraingoaren ere, gure patriketan edo bolantean daramatzagun gailuen zama.

EITB Dataren azken inkestaren arabera, "gutxi kutsatzen" duten auto elektriko berrien salmenta %10etik %60ra igaro da Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Han eta hemengo mendietan zentral eoliko eta fotovoltaikoak eraikiko dituzte; Nafarroan transformazio digitalerako poloa, Ribabellosan datu zentro erraldoia, Donostian super ordenagailu kuantikoa; eta gainera, Adimen Artifiziala indarrean dator bere hardware eta erdieroale gudarostearekin. Zenbat metal, zenbat mineral, zenbat kobalto beharko da?

Malo lakuko neskatilari entzundako esaldia buruan iltzatu zaio itzulera bidaiari Ferdinand Lassalleri. Gorputzak merkantzia ziren eta merkantzia dira Kongon. Katangatik Yagambira joan da abioneta biplano britainiar batean, Yagambitik Kinshasara baporean, gero pakebortean, eta azkenik iritsi da amaierako puntura, Bruselako Lumumba eta Shuman karriken arteko kale kantoira, dzart eta klak, amaiera hasiera ere badela konturatu gabe. Baina hau ez da nobela bat, hau errealitatea da. ●

**1997**ko maiatzaren 17a: AFDLk Mobutu garaitzen du. Zaire, Kongoko Errepublika Demokratikoa (KED) izatera pasatzen da.

**2002**ko iraila-abendua: KEDEk bake akordioa sinatzen du Ruandarekin eta Ugandarekin. Kongoko Bigarren Gerraren amaiera.

**2012-2013**: soldadu ohiek Martxoak 23 Mugimendua sortzen dute, baina Kongoko armadak zapalduko ditu.

**2022**ko martxotik: M23 taldeak berriz ere erasora jotzen du.

**1996-1997**: Kongoko Lehen Gerra. Zaireko ekialdean, Ugandak eta Ruandak babestuta, Laurent-Desiré Kabilak Ruandako errefuxiatu hutuak eta Banyamulengeko tutsiak biltzen ditu Kongoko Askatasunaren eta Demokrasiaren aldeko Indarren Aliantzaren (AFDL), Joseph Mobutu Sese Sekoren gobernuaren kontra.

**1998-2002**: Kongoko Bigarren Gerra. Matxinatu banyamulengeek Ipar Kivuko Goma hiria hartzen dute, eta Ruandak Demokrasiaren Aldeko Batasuna (RCD) taldeari armak ematen dizkio Kabilaren kontra. Aitzitik, Zimbabwe, Namibia, Txad, Libia, Sudan eta Angola, KEDen alde jartzen dira.

**2004**tik: Kivuko gerra. Ruandako talde matxinatuen, armada kongoarraren eta Kivuko Herriaren Defentsarako Kongresu Nazionalaren (CNDP) arteko borroka, eskualde horretako baliabide mineralen kontrola lortzeko.

**2016**tik: Kasai eskualdeko talde armatu bat –Kamwina Nsapuren jarraitzaileak– gobernuaren kontra altxatzen da.

# ARGIA EGUTEGIA 2025

*Hurrengo urtean ere, egunero efemeride bat.*

Historiografia ofizialak albo batera utzi ohi dituen pertsonekin, egungo mundua hobeto ulertzen lagunduko diguten gertaerak errepasatuko ditugu urteurrenak aitzakia hartuta.

*“Oroimen historikoa ez da iraganeko nostalgia hutsa, tresna bat da gaurko injustiziaren aurkako borrokan”*

**Eduardo Galeano**



40€ Euskarria

45€

Egutegia +  
Pago-egurrezko  
euskarria

Egutegia 10€

**azoka.argia.eus**  
(+34) 943 37 15 45

**ARGIA 2025**

		APRILA						
1	2	3	4	5	6	7	8	
9	10	11	12	13	14	15	16	
17	18	19	20	21	22	23	24	
25	26	27	28	29	30			

**22**  
ASTEARTEA

**1924ko 3**  
Madelain  
Frantziar  
eta nazien alder  
zuen, 20 urte bete zituen...  
berak zuzendutako erresistentziako  
nazien hornikuntza ren bat geldiarazi zuen  
Parisen, eta granada eta suzirik erasota BO  
saldatu alemaniar preso hartu zituzten.

**AMA LURRAREN NAZIOARTEKO EGUNA**